



NOTICIAS E INFORMACIONES DE INTERÉS ALBISTE ETA INFORMAZIO INTEREGARRIAK



Fuente:

**Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria /
Euskal Herriko Jubilatuen Mugimenduan**

Noticias e informaciones de interés

31-mayo-2025

1.- Encuentro de plataformas de pensionistas de Castilla-León, con invitación al MPEH

El pasado sábado se celebró en Valladolid un encuentro organizado por las plataformas pensionistas de Castilla-León, al que se sumaron compañeros/as pensionistas de Andalucía, Aragón, Asturias, Cantabria, Madrid y Barcelona. Asimismo, fue invitado el Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria (MPEH) para informales y contarles la experiencia de la Iniciativa Legislativa Popular (ILP) en la Comunidad Autónoma Vasca.

En el encuentro fue abordada, en primer lugar, la campaña para exigir que se lleve adelante la Auditoria de los gastos impropios de la Seguridad Social, que supusieron el desvío de muchas decenas de miles de millones de euros de ésta, sin que aún no hayan sido debidamente cuantificados ni devueltos a la caja de la Seguridad Social.

En segundo lugar, buena parte del encuentro estuvo destinado a la información y explicación por parte de la delegación del MPEH de la experiencia y el balance de la campaña en defensa de la Iniciativa Legislativa Popular.

Hubo no pocas preguntas y aclaraciones sobre la ILP, más allá de las felicitaciones al MPEH por el éxito de la campaña realizada. Resaltaron, asimismo, la referencia positiva que constituye esa iniciativa para intentar impulsarla en otras Comunidades o Pueblos del Estado. Otra cuestión es que atreverse a impulsar una ILP de esta naturaleza implica un movimiento de pensionistas con una cierta consolidación y un apoyo social que consideran es más complicado que en Euskal Herria.

Fue un encuentro positivo, con muestras de apoyo solidario entre todas las plataformas y personas pensionistas asistentes. La delegación del MPEH volvió satisfecha del encuentro y con la disposición allí expresada de apoyar y colaborar con plataformas y movimientos de pensionistas del resto del Estado, en cuantas iniciativas sean de interés común.

2.- Éxito de Euskaraldia

Según la mesa de coordinación de la campaña de Euskaraldia, esta cuarta edición, que se inició el 15 de mayo y culminó el día 25, ha sido un éxito, Sin contabilizar aún todas las personas que habían dado su nombre para ser agentes activos en el impulso y uso del euskara, manifestando su compromiso público con las chapas colgadas en sus solapas *ahobizi* y *belarriprest*, señalaron que se habían inscrito 135.000 personas. Añadiendo que varias decenas de miles de personas más habían sido participes de la campaña, sin haberse registrado ni hacer uso de las chapas.

Añadieron, asimismo, que en la campaña se habían involucrado 7.500 entidades y 450 municipios, tanto del norte como del sur de Euskal Herria. Y quisieron resaltar que el éxito de que el uso y visibilización del euskara durante estos 11 días, es el resultado de un amplio número de entidades, colectivos locales y personas que desde hace meses han venido trabajando en la preparación de Euskaraldia, impulsando en las semanas previas a su inicio diversas iniciativas en su promoción y apoyo social.

El reto y el objetivo ahora es que aprovechando la ola positiva del Euskaraldia intentemos superar las diferentes inercias que dificultan la utilización del euskara y que nuestra lengua propia sea utilizada y reconocida socialmente en todos los ámbitos de la vida cotidiana, sea de carácter cultural, social o político. Al MPEH nos corresponde también ser un agente activo, más aún con la referencialidad social que hemos adquirido.

3.- Obstáculos para acceder a la pensión mínima contributiva de jubilación: derechos limitados para las personas cuidadoras (2)

La semana pasada publicamos un primer capítulo referido a los obstáculos para acceder a la pensión mínima contributiva de jubilación debido a "los periodos de cotización reducida". En este segundo capítulo se hace referencia a los "derechos limitados para las personas cuidadoras". La próxima semana nos referiremos a las dificultades generadas por la "parcialidad en la contratación y economía sumergida"

Bajo el Gobierno Rajoy, en el año 2012, el Estado dejó de asumir la cotización de las cuidadoras de familiares de las personas en situación de dependencia. Ello supuso una reducción del 90% de los convenios especiales suscritos ante la práctica imposibilidad de hacer frente al gasto de los mismos por parte de las cuidadoras, que perciben una prestación de muy baja cuantía. A partir del 1 de abril de 2019 (PSOE) se recuperó esa financiación a cargo del Estado, pero sin efectos retroactivos, por lo que la suspensión de ese convenio durante casi siete años ha supuesto la imposibilidad de acceso a la pensión de jubilación de miles de personas cuidadoras (la gran mayoría mujeres) por no haber llegado a los 15 años de cotización necesarios y la reducción de la pensión a otras miles de ellas.

Se reconoce como cotizado a efectos de pensiones y de algunas otras prestaciones de Seguridad Social las excedencias familiares, por cuidado de hijas/os o menores acogidas/os que sean menores de 3 años de edad con una duración máxima de tres años. También se puede acceder a excedencia de hasta dos años por cuidado de otros familiares (hasta el segundo grado), pero solo se reconoce como cotizado un año, límite que contrasta con la gran duración de la actividad de cuidado a sus madres y padres, cónyuges u otros familiares que realizan muchas mujeres.

4.- Comunicado del Movimiento Pensionista de Euskal Herria en solidaridad con la Sociedad Valenciana

El MPEH se solidariza y hace suya la exigencia de amplios sectores de la sociedad valenciana que piden la dimisión del presidente de la Generalitat Valenciana Carlos Mazón. Nos unimos al dolor de familiares de víctimas de la Dana, que han sido tratadas injustamente y olvidadas por la máxima institución valenciana y su presidente Mazón.

Solo el pueblo valenciano, la clase trabajadora y la juventud valenciana dieron la talla, poniéndose inmediatamente a disposición de los damnificados y de las comarcas anegadas para rescatarlas del desastre de la Dana, aquel 29 de octubre de 2024.

Desde el Movimiento Pensionista de Euskal Herria enviamos nuestro más sincero y solidario abrazo y animamos a la sociedad valenciana a responder al llamamiento a la Huelga General para el 29 de este mes de mayo "TUMBEMOS A MAZON" convocada por la Intersindical Valenciana, CNT, COS y CGT. La dignidad de la sociedad valenciana no puede ser mercancía política y se merece nuestra solidaridad incondicional.

Albiste eta informazio interesgarriak

2025eko maiatzak 31

1.- Gaztela eta Leongo pentsiodunen plataformen topaketa, bertan EHPM gonbidatuta

Joan den larunbatean, Gaztela-Leongo pentsiodunen plataformek antolatutako topaketa egin zen Valladoliden, eta Andaluzia, Aragoi, Asturias, Kantabria, Madril eta Bartzelonako lagun pentsiodunak batu zitzaizkien. Era berean, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua (EHPM) gonbidatu zuten Euskal Autonomia Erkidegoan izandako Herri Ekimen Legegilearen (HEL) esperientzia azaltzeko.

Topaketan, lehenik eta behin, Gizarte Segurantzaren gastu desegokien auditoria aurrera eramatea eskatzeko kanpainari ekin zitzaion. Gastu horiek hamarnaka mila milioi euro Gizarte Segurantzatik desbideratzea ekarri zuten, eta oraindik ez dira behar bezala kuantifikatu, ezta Gizarte Segurantzaren kutxara itzuli ere.

Bigarrenik, topaketaren zati handi bat EHPMren ordezkariak Herri Ekimen Legegilearen aldeko kanpainaren esperientziari eta balantzeari buruzko informazioa eta azalpenak emateko izan zen.

HELri buruzko galdera eta argibide asko izan ziren, egindako kanpainaren arrakastagatik EHPMri egindako zorionetatik haratago. Era berean, ekimen hori Estatuko beste Erkidego edo Herri batzuetan bultzatzen saiatzeko erreferentzia positiboa dela nabarmendu zuten. Beste kontu bat da horrelako HEL bat bultzatzera ausartzeak nolabaiteko sendotzea eta gizarte-babesa dituen pentsiodunen mugimendua eskatzen duela, eta horiek Euskal Herrian baino zailagoak direla.

Topaketa positiboa izan zen, plataforma guztien eta bertaratu ziren pentsiodunen artean babes solidarioa erakutsiz. EHPMren ordezkariak pozik itzuli zen topaketatik, eta Estatuko gainerako pentsiodunen plataforma eta mugimenduei laguntzeko eta haiekin lankidetzan aritzeko prest agertu zen, guztien interesekoak diren ekimen guztietan.

2.- Euskaraldiaren arrakasta

Euskaraldiaren kanpainako koordinazio mahaiaren arabera, laugarren edizio hau, maiatzaren 15ean hasi eta 25ean amaitu zena, arrakastatsua izan da. Euskararen sustapenean eta erabileran eragile aktibo izateko izena eman zuten pertsona guztiak, *ahobizi* eta *belarriprest* hegaletan zintzilikatutako txapen bidez beren konpromiso publikoa adierazi zutenak, oraindikzenbatu gabe egon arren, 135.000 pertsonak izena eman zutela adierazi zuten. Gainera, dozenaka mila pertsona gehiagok, txapak erregistratu eta erabili gabe, kanpainan parte hartu zutela adierazi zuten.

Gaineratu zuten, halaber, kanpainan Euskal Herriko iparraldeko zein hegoaldeko 7.500 erakundek eta 450 udalerrik parte hartu dutela. Eta nabarmendu nahi izan zuten 11 egun hauetan euskararen erabilera eta ikusgarritasuna, duela hilabete batzuetatik hona Euskaraldia prestatzen aritu diren eta hasi aurreko asteetan Euskaraldia sustatzeko eta laguntzeko ekimen ezberdinak antolatu dituzten hainbat erakunde, tokiko kolektibo eta pertsona ugariren emaitza izan dela.

Orain erronka eta helburua da Euskaraldiaren olatu positiboa aprobetxatuz euskararen erabilera oztopatzen duten inertziak gainditzen saiatzea eta gure hizkuntza eguneroko bizitzako esparru guztietan, kultura, gizarte edo politika arlokoak izan, erabilia eta aitortua izatea. EHPMri ere eragile aktiboa izatea dagokio, are gehiago eskuratu dugun erreferentzialtasun soziala kontuan harturik.

3.- Kotizaziopeko gutxieneko erretiro-pentsioa eskuratzeko oztopoak: zaintzaileentzako eskubide mugatuak (2)

Joan den astean lehen kapitulu bat argitaratu genuen, "kotizazio-aldi murriztuak" direla-eta kotizaziopeko gutxieneko erretiro-pentsioa eskuratzeko dauden oztopoei buruzkoa. Bigarren kapitulu honetan, "zaintzaileentzako eskubide mugatuak" aipatzen dira. Datorren astean, "kontratazioaren partzialtasunak eta ezkutuko ekonomiak" sortutako zailtasunez arituko gara.

Rajoy-ren gobernupean, 2012an, Estatuak mendekotasun-egoeran zeuden pertsonen senideen zaintzaileen kotizazioa bere gain hartzeari utzi zion. Horren ondorioz, % 90 murriztu ziren sinatutako hitzarmen bereziak, zaintzaileek ia ezin baitzieten aurre egin hitzarmen horien gastuari, oso zenbateko txikiko prestazioa jasotzen baitute. 2019ko apirilaren 1etik aurrera (PSOeko gobernu) finantzaketa hori berreskuratu zen Estatuaren kontura, baina atzeraeraginezko ondorioz gabe; beraz, hitzarmen hori ia zazpi urtez etetearen ondorioz, milaka zaintzailek (gehienak emakumeak) ezin izan dute erretiro-pentsioa jaso, beharrezko 15 urteko kotizaziora iritsi ez direlako eta beste milaka zaintzaileri pensioa murriztu zaie.

Pentsioei eta Gizarte Segurantzako beste prestazio batzuei dagokienez, 3 urtetik beherako seme-alabak edo harreran hartutako adingabeak zaintzeko familia-eszedentziak kotizatutzat jotzen dira, gehienez ere hiru urteko iraupenarekin. Beste senitarteko batzuk (bigarren gradura artekoak) zaintzeko ere bi urtera arteko eszedentzia har daiteke, baina urtebete baino ez da onartzen kotizatutzat, eta muga hori ez dator bat emakume askok gurasoak, ezkontideak edo beste senitarteko batzuk zaintzeko egiten duten jardueraren iraupen luzearekin.

4.- Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduko Komunikatua Valentziako gizaritari elkartasuna adierazteko

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak (EHPM) elkartasuna adierazi eta bere egiten du Valentziako gizariteko sektore zabalek aldarrikatzen duten Carlos Mazon Valentziako Generalitateko presidentearen dimisio-eskaera. Dana delakoaren biktimen senitartekoen minarekin bat egiten dugu, Valentziako erakunde gorenak eta haren presidente Mazonen bidegabeki tratatu eta ahaztu baitituzte.

Valentziako herriak, langile klaseak eta gazte valentziarrek bakarrik eman zuten maila, eta kaltetuen eta urpean zeuden eskualdeen esku jarri ziren berehala, 2024ko urriaren 29an Dana hondamenditik erreskatatzeko.

EHPMtik gure besarkada zintzo eta solidarioena bidaltzen diegu eta Valentziako gizarteari dei egiten diogu maiatzaren 29rako Valentziako Intersindikalak, CNTk, COSek eta CGTk deitutako "MAZON KANPORA/TUMBEMOS A MAZON" greba orokorrerako deialdiari erantzuteko. Valentziako gizartearen duintasuna ezin da merkantzia politikoa izan, eta baldintzarik gabeko elkartasuna merezi du.